

GENEROA ETA EUSKARAREN ERABILERA EGOKIA

Amelia Barquín

Aurkibidea

0. Sarrera
1. Generoa aditzean: hitanoa
2. “Gizona”: erabilera espezifikoa
3. “Gizartea” edo “jendartea”? “Giz”- erroaren erabilera generikoa
4. “Gizona” hitz elkartuetan
5. Generoa daukaten izenak
6. Generorik gabeko izenak zehaztu beharra
7. Euskaraz behar ez diren estrategia batzuk
8. Erabilpen asimetrikoak
9. Asimetria mezuetan
10. Asimetria trataeran
11. Gizona erreferentzia moduan
12. Jauzi semantikoa
13. Inbertsioaren araua
14. Androzentrismoa
15. Lesbianak, gayak, bisexualak, transexualak... izendatzea
16. Azkeneko komentarioa

0. SARRERA

Testu honen helburua hauxe da: euskararen erabilpenaren inguruan hausnarketa egitea generoari dagokionez eta, hausnarketa horrekin lotuta, zenbait proposamen eskaintzea egoki adierazteko. Aldi berean, gaiarekiko sentsibilitatea eragin nahiko genuke, garrantzitsua baita hiztunok kontzientzia hartzea gure adierazpena zaintzeko.

Jakina denez, garai batean entzuten zen euskaraz ez zela posible dagokigun gaian desegoki adieraztea. Izan ere, esan eta idatzi zen euskara ez zela beste hizkuntza batzuk bezain sexista, edo, zuzenean, euskara ez zela “hizkuntza sexista”.

Komeni da iritzi horien jatorria labur azaltzea. Ideia horiek, ziur aski, auzo-erdaren konparaziotik abiatzen ziren: dakigunez, bai gaztelania bai frantsesa –beste hizkuntza erromanikoak bezala eta beste hainbat hizkuntza bezala European eta mundu osoan– genero hizkuntzak dira; genero kategoria gramatikala daukate. Gaztelaniak eta frantsesak femeninoa eta maskulinoa daukate (garai bateko neutroaren aztarna batzuek gain): “niña / niño”; “actrice / acteur”. Genero gramatikalak izenak eta izenordeak sailkatzen ditu eta determinanteekin eta adjektiboekin komunztaduretan islatzen da: “la niña alta / el niño alto”. Hizkuntza horien sisteman, gainera, maskulinoa generiko edo orokor gisa erabiltzen da, hau da, izendatutako errealitatea gizonak eta emakumeek osatzen dutenean edo errealitate horren konposizioa ez dakigunean: “los niños de educación primaria”, “les acteurs”.

Maskulino generikoaren erabilpena eztabaida iturria izan da azkeneko hamarkadetan. Hainbat ahotsek arbuiatu dute bere erabilpena, emakumeak ezkututzen dituela argudiatuta eta emakumeak momentu oro izendatu behar direla defendatuta. Horren ondorioz beste alternatiba batzuk proposatu dira, hainbat gidatan ikus daitekeenez: femenino eta maskulinoaren alternantzia, izen orokorrak kolektibo mistoei erreferentzia egiteko, esaldiak birformulatzea...

Euskara, berriz, ez da “genero hizkuntza”; ez dauka aipatutako genero gramatikalik, hitzak sailkatzen dituen eta komunztaduretan islatzen dena: “neska altua / mutil altua” sintagmetan ez dago genero morfemarik. Hortik ondorioztatu da euskaraz ez zegoela aukerarik erabilpen sexistarik egiteko.

Dudarik ez, auzo-erdaretan dagoen maskulino generikoa euskaraz ez egoteak esan nahi du ez dela gai horrekiko eztabaidarik egon eta hiztunek ez dutela gai horren inguruan pentsatu edo erabakiak hartu behar izan. Esan genezake horrek buruhauste bat kendu digula. Hala ere, uste dugu maskulino generikoaren eza ez dela gure arreta erakarri behar duen alderdi bakarra. Gaztelanian, adibidez, maskulinoaz gain, hainbat fenomeno daude analizatzeko. Euskaraz, bere aldetik, badaude hainbat aspektu “generoz” tindatuta daudenak, eta horien inguruan hausnartzea merezi du. Izan ere, generoa presente dagoen eremuetan zenbait arazo sortzen zaizkigu euskaraz ere, aurrerago ikusiko dugunez.

Esan dezagun, bestalde, hizkuntza batek generoa edukitzeak ala ez lotura zuzenik ez daukala, berez, gizartea parekoagoa edo ez-parekoagoa izatearekin. Munduan badaude generoa daukaten hizkuntzak (bi genero frantsesean eta gaztelanian, hiru genero alemaneran, sei genero swahilian...) eta badaude generorik gabeko hizkuntzak, euskara, hungariera eta mongoliera bezala. Ezin da sailkapen sinplerik planteatu aipatu

parametroen arabera; ez da zuzena esatea generoa daukatenak sexistagoak direla besteak baino. Izan ere, esparru pribatua eta publikoaren banaketa emakume eta gizonen artean eta esparru publikoarekin lotutako prestigioa oso zabaldua dago gizarte askotan -euskal gizartean ere-; hori bai, era desberdinetan gizarte bakoitzean.

Behin baino gehiagotan planteatu dira, bada, honako galderak: hizkuntzak sexistak izan daitezke? Hizkuntza batzuk beste batzuk baino sexistagoak dira? Uste dugu galderen formulazioak ez duela gaia ondo kokatzen. Ulergarria dirudi gizartean izaera historiko ez-parekoek hizkuntzetan aztarnak uzteak (“neska” hitza iraina bihurtu ahal izatea mutil bati aplikatuta, adibidez). Susmatzen dugu munduko hizkuntzetan aurkitu ahal izango ditugula gizarteetan egon diren eta dauden pertsonen arteko desberdintasunaren arrastoak. Euskararen aurkituko ditugu: hitz batzuen esanahia, termino batzuen adieraren desberdintasuna emakumei edo gizoni aplikatzen zaizkielarik... Eta aldi berean, esan behar da hiztunen ekoizpenetan hautemandako sexismoa hizkuntzaren erabilpenean dagoela gehienetan, ez hizkuntzaren sisteman. Hiztunak, beraz, adierazteko modua aukeratu ahal du eta erabilera egokia egin dezake; hizkuntzak ez du desgoki adieraztera behartzen (ez gaitu “neska” irain moduan erabiltzera behartzen).

Ez dezagun ahaztu, bestalde, euskaldunak elebidunak garela; paradoxikoa izango litzateke pertsona berberak hizkuntza batean adieraztea modu sexista batean eta beste hizkuntzan modu egokian. Emakume eta gizoni buruzko gure ikuspegia eta gure jarrerak antzekoak izango dira erabiltzen ditugun bi hizkuntzetan eta bi hizkuntzetan islatuko dira.

Hasieran esan bezala, testu honen helburua hau da: generoarekin lotura daukaten alderdiak aztertzea euskararen eta, ahal den heinean, proposamenak egitea generoei dagokien aniztasuna errespetuz eta ekitatez tratatzeko linguistikoki. Eta, dudarik ez, errespetu eta zuzentasun linguistikoak lagungarriak izango dira gizartean generoen arteko berdintasuna lortzeko ahaleginean.

“Genero” hitzak zentzu asko dauzka. Alderdi gramatikala alde batera utzita, emakumeak eta gizonak bereizteko erabiltzen da. Jakina denez, pertsonen generoa, alegia emakumea ala gizona izatea, eraikuntza soziala da; pertsonak bi generotan dauzkagu sailkatuta (femeninoa eta maskulinoa), jaiotzean asignatutako sexuaren arabera. Baina garrantzitsua da gogoratzea kategorien arteko muga zurrinak hein batean lausotzen joan direla: gaur egungo hainbat ahotsek azaltzen dute pertsonen identitate generikoa aldakorra izan daitekeela eta are sailkaezina ere; transgeneroen eta *queer*-en presentziak hala konfirmatzen du. Hizkuntzaren bidez aniztasuna errespetatu nahi duen hiztunak kontuan hartu beharko du identitatea eraikitzeke aukera guztiek begirunea merezi dutela.

Gure asmoa ez da izan gaien exhaustiboki aritzea: alderdi garrantzitsuenak aukeratu ditugu eta filologoa edo hizkuntzan aditua ez den edozein pertsonarentzat ulergarriak izateak gidatu ditu lerro hauek. Trataduko alderdi gehienak Emakundek argitaratutako liburu batean aurki daitezke (Amelia Barquín, [Euskararen erabilera ez sexista](#). [Gidaliburua](#). Emakunde, Gasteiz, 2008); testu horretan bezalaxe, hemen arreta jarriko dugu ez soilik idatzizko mailan, baizik eta ahozko mailan ere. Oraingo testuan, berriz, asmoa izan da batez ere erabiltzaileari aholku baliagarriak ematea. Goazen, bada, ikustera euskararen non agertzen den generoa, zein arazo sor daitezkeen eta nola eman ahal diegun konponbidea.

1. GENEROA ADITZEAN: HITANOA

Hitanoa erabiltzeak eskatzen du hiztunak solaskidearen generoa kontuan izatea; aditzean marka desberdina utziko du generoaren arabera: “erretzeari utzi iezaion!” (emakume bati, *noka*) eta “erretzeari utzi iezaio**k**!” (gizon bati, *toka*).

Erabilpenean, baina, arazoak sortzen dira solaskidea ez denean genero bakar batek osatutako taldea edo ez nor den ez dakigunean. Kasu horietan hitanoa desegoki baliatzen da maiz: atzizki maskulinoak erabiltzen dira. Eta hori gertatzen da bai ahoz (lagunartean, familiarartean, abestietan...), bai idatziz (oharretan, iragarkietan...). Egia da hitanoa ez dela ohikoa administrazio testuetan, baina bai kanpaina batzuetan, gazteei zuzendutako zenbait mezutan...

Zein da erabilpen desegoki horren alternatiba? Alde batetik, “zu” tratamendua erabiltzea dago. Baina beste estrategiak ere erabili daitezke: inperatiboan, kasu, ez da ezinbestekoa aditz laguntzailea jartzea.

*Erretzeari utzi iezaio**k** → Erretzeari utzi*

*Musika gustatzen za**ik** → Musika gustatzen za**izu***

*Ekar ezak hire proposamena → Ekarri **hire** / **zure** proposamena*

Idatzizko testu batzuetan (maila ez oso formalekoetan) bi atzizkiak uztartzea gero eta ohikoagoa da. Denborak erakutsiko digu zein bide egiten duen baliabide horrek. Hona hemen adibide bat:

*Inork ez **dink** aurtengo txapeldunak beste ohore eta bitore jaso.*

2. “GIZONA”: ERABILERA ESPEZIFIKOA

“Gizona” hitza erabili da tradizioan eta literaturan bai gizonak bakarrik bai gizonak eta emakumeak izendatzeko. Hiztegi batzuek oraindik bi esanahiak jasotzen dituzte eta batzuetan esanahi orokorra agertzen da lehendabizi. Honela, adibidez:

Gizon. 1. Gizakia, lurreko abere mota garatueneko kidea. Ikus **giza-**. [...]. 2. Gizaki arra. Ikus **gizonezko**; **gizaseme**; **emakume**. [...]

Baina “gizakia = pertsona arra” eragiketa saihesteko, “gizona” zentzu espezifikoan (pertsona arra izendatzeko) soilik erabiltzeko gomendatzen dugu. Desegokia da, beraz, modu orokorrean edo generikoan (emakumeentzat ere) erabiltzea.

*Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten **gizonak**? Non daude herri honek behar dituen politikariak? → Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten **pertsonak** / **gizakiak**? Non daude herri honek behar dituen politikariak?*

3. “GIZARTEA” EDO “JENDARTEA”? “GIZ”- ERROAREN ERABILERA GENERIKOA

Atal honetan, uste dugu beharrezkoa dela azalpen labur bat eskaintzea. Gai eztabaidatua izan da “giz”- erroa modu generikoan edo orokorrean erabiltzea egokia ote den (alegia, emakume eta gizonentzat). “Gizarte” hitza jarri da zalantzan, besteak beste. Bi jarrera bereiztu dira.

Haietako bat: “giz”- erroaren erabilpen generikoa arbuiatzea erro hori “gizon” hitzean ere badagoelako. Eta baita zentzu espezifikoa duten beste batzuetan ere: *gizasemea*, *gizagaixoa*, *gizakotea*, *gizakoia*, *gizagaldua*, *gizon*, *gizonki*, *gizontasuna*, *gizonkeria*...

Hiztun batzuek desegokitzen jotzen dute, beraz, *pertsonak* izendatzeko hitzak eta *pertsona arrak* izendatzekoak sustrai berbera izatea (arrak pertsonak *per se* balira bezala), *pertsona emeekin* gertatzen ez den bezala. Horren ondorioz, “giz”- daukaten hitz generikoak ez dituzte erabiltzen: *gizakia*, *gizartea*, *gizadia*, *gizabidea*, *gizabanakoa*, *gizataldea*, *gizatiarra*, *gizatasuna*... Haien ordez, *pertsona edo jendea*, *jendartea*, *humanoa* (“*eskubide humanoak*”) *humanitatea*... eta beste batzuk erabiltzen dituzte. Izan ere, “jendartea” asko zabaldu da azkeneko urteotan.

Alternatiba horietako batzuetan, baina, arazoak aurkitu dira. “Jendea” proposatu da “gizakiaren” ordez baina hitzaren zentzu kolektiboa oso hedatuta dago hizkuntzan, singularra (pertsonarena) baino gehiago. “Jendartea”, bere aldetik, pertsonen talde bat izendatzeko erabiltzen da, ‘jendaurrea’ edo ‘lagunartea’ da; “gizarteak” zentzu zabalagoa dauka. “Humanoa”, berriz, latineko *homo*, *-nis* hitzetik dator: latinez *homo* hitz orokorra zen, baina gaztelaniako eta frantseseko egungo emaitzak, *hombre* eta *homme*, espezifikoa dira. “Eskubide humanoak” sintagma ez litzateke, beraz, aukera hobe izango “giza eskubideak” baino.

Gaiaren aurrean beste jarrera bat dago. Horren arabera, hiztunek ez dute giz- erroa daukaten hitzetan arazorik ikusten. Alde batetik ez dago oraindik argi zein den “gizarte” hitza eta “gizon” hitzaren arteko harreman historikoa. Bestalde, hiztunek ez dute hitzen etimologiaren eta bilakaeraren kontzientziarik; hitzek haien bidea egiten dute eta esanahiak ere garatzen dira: ohikoa da hitz baten esanahia ez izatea beste garai batean izan zuena. Hiztun arruntek (filologoak, hizkuntzalariak, hizkuntzaren ikerlariak... ez direnek) ez dute hitzen etimologiaren eta bilakaeraren ezagutzarik eta ez dute zertan jakin “jendea” ere latineko *gens -tis* hitzetik datorrela eta *gens* latinean ez zela ‘jendea’. Izan ere, ‘leinua’ izan nahi zuen, alegia, nobleen familia. Gaur, berriz, hortik eratorri den “jendea” hitzak zentzu orokorra hartu du eta bere jatorri elitista ez dago hiztunen kontzientzian. Ez dira kontziente, halaber, “bagina” (ematutua) hitza “vagina” hitzetik datorrela eta bertan ‘zorroa’ esan nahi zuela; metafoa moduan (zakilaren zorroa izateagatik) heldu zela emakumearen ematutua izendatzera.

Arrazoi horregatik, besteak beste, hiztun gehienek baliatzen dituzte “giz-“ erroa daukaten hitz orokorrak, bai ahoz bai idatziz, testuinguru formal eta informaletan. *Berriaren* estilo liburuan azaltzen da, adibidez, egunkariak ez duela “jendarte” erabiltzen “gizarte” adierazteko.

Arrazoi horiengatik ez ditugu, beraz, “gizartea”, “gizakia”, “giza-” eta abar arbuaiatuko. Atal honetan jarreraren berri eman dugu labur hitzun bakoitzak bere gogoeta egin dezan.

4. “GIZONA” HITZ ELKARTUETAN

Hainbat hitz elkartu dira tradizionalki “gizon” osagaiarekin:

lege-gizona, enpresa-gizona, industria-gizona, kultur gizona, elizgizona, plazagizona, itsasgizona...

Hitz konposatu horiek egokiak izango dira baldin eta esanahi espezifikoa badaukate, gizonekin lotuta. Erreferentzia egiten badio talde anitz bati edo ezagutu gabeko generoko pertsona bati, “gizon” osagaia aldatu beharko dugu “-ari” atzizkia, “langile”, “pertsona” etab. erabiliz:

legelaria, enpresaria, industrialaria, kultur-pertsona, eliz-pertsona, plaza-pertsona, itsas-langilea...

Posible da, noski, kolektiboa erabiltzea (*jendea*); halaber, generoa zehaztuko dugu pertsonarena baldin badakigu (*kultur gizona, kultur emakumea, kultur jendea...*).

Adibidez:

*Esperientziaren bortxaz, **enpresa-gizonak** ohartu dira sobera indarra ematea sektore bakarrari arriskutsua dela → Esperientziaren bortxaz, **enpresa-jendea** ohartu da / **enpresa gizon-emakumeak** ohartu dira sobera indarra ematea sektore bakarrari arriskutsua dela*

*Zertan ibiliko ginateke, medikuak, injineruak, **enpresa gizonak**, abokatu, antropologo edota politikariak behar den bezala heziko ez bagenitu? → Zertan ibiliko ginateke, medikuak, injineruak, **enpresa jendea** / **enpresa gizon-emakumeak**, abokatu, antropologo edota politikariak behar den bezala heziko ez bagenitu?*

5. GENEROA DAUKATEN IZENAK

Euskaran hainbat izenek generoa daukate, bai animaliak izendatzeko (*behorra* eta *zaldia*, *ardia* eta *aharia*, *ahuntza* eta *akerra*, *oiloa* eta *oilarra*...) bai pertsonen erreferentzia egiteko:

gizalaba, emakumea, emakumezkoa, andrea, andregai, emaztea, neska, gizasemea, gizonzkoa, senarra, senargaia, mutila, jauna...

Badaude senidetasuna adierazten duten beste izen generodun batzuk ere:

ama, amona, izeba, erraina, alaba, ahizpa, arreba, aita, aitona, osaba, suhia, semea, anaia, neba...

Ohar gaitezen, halaber, euskaran lau izen daudela alboko hizkuntzetan bi dauden tokian: *neba, arreba, ahizpa eta anaia*.

Generoa daukaten izenekin gizonek eta emakumeek osatutako plurala erabiltzeko orduan, femenino eta maskulinoaren elkartea erabili behar da: *seme-alabak, neska-mutilak, andre-gizonak, jaun-andreak...* Izen maskulinoak –*semeak, mutilak, jaunak...*– desegoki erabiltzen dira maiz bi generoak izendatzeko; derrigorrezkoa da bi elementuak presente egotea.

Adibideak:

**Zenbat seme dituzu? → Zenbat seme-alaba dituzu? / Zenbat ume dituzu?*

**Kanguru hau triste dago ez baitauka semerik → ez baitauka umerik (kumerik)*

**Zure aitak etorriko dira? → Zure gurasoak etorriko dira?; zuen aita-amak etorriko dira? [Gurasoak bi aita ez badira, argi dago].*

**Osabak etorri dira → Osaba-izebak etorri dira*

**Guztiok anaiak gara → Guztiok neba-arrebak gara*

**Ikasleen anai-arrebak ere etor daitezke → Ikasleen neba-arrebak ere etor daitezke*

**Eskolako maisu guztiak gonbidatuta daude → Eskolako maisu-maistra / irakasle guztiak gonbidatuta daude*

**Errege Katolikoek konkista → Errege-erregina Katolikoek konkista*

**Probintziako alkate jaun guztiak erantzun diote deialdiari → Probintziako alkate jaun-andre guztiak erantzun diote deialdiari*

6. GENERORIK GABEKO IZENAK ZEHAZTU BEHARRA

Esan dugu jada euskaran izen gehienak ez daudela generoen arabera sailkatuta; salbuespenak zerrendatu ditugu gorago. Hala ere, geure buruari haxe galdetu ahal diogu: generorik gabeko izenak entzutean edo irakurtzean, nortaz hitz egiten den jakin gabe, zer irudi etortzen zaigu gogora, emakume bat edo gizon bat? Zerrenda hau irakur dezagun:

- *Erizaina, idazkaria, jostuna, haur-zaina, telefonista, sare-konpontzailea, garbitzailea, emagina, suhiltzailea, iturgina, zurgina, igeltseroa, urpekaria, ugazaba, artzaina, abeltzaina...*

Zer irudikatu dugu hitz horiek irakurtzean? Hitzok, noski, ez dute adierazten zein den pertsonaren generoa, baina gerta daiteke guk geuk mentalki generoa jartzea. Generoa adierazi nahi badugu, baina, zehaztu beharko dugu:

- *Andre edo emakume euskaltzaina, jaun edo gizon euskaltzaina; andre edo emakume zuzendaria, gizon edo jaun zuzendaria; neska urpekaria, mutil urpekaria...*

7. EUSKARAZ BEHAR EZ DIREN ESTRATEGIA BATZUK

“-SA” BUKAERAKO FEMENINOAK

Zubereran “-sa” atzizkia izen femeninoak osatzeko erabiltzen da. Atzizkia daramaten hitz batzuk, bestalde, berriak dira edo maileguak: *alkatesa, aktorea, idazlesa, dantsarisa, alarguntsa, bertsolarisa, idazkarisa, langilesa...* Baliteke hedatze hori gaztelaniaz eta frantsesez emakumeak izendatzeko aldarrikapenekin zerikusirik izatea, baina bide hori ez dator euskararen izaerarekin bat eta hizkuntzak ez du estrategia hori behar. Hortik jarraitzekotan, euskararen ere “bikoteak” sortzen joango lirateke, frantsesa eta gaztelaniaren erara (*doctora / doctor; doctoresse / docteur*) eta plural bikoitzak beharko lituzkete: *alkate-alkatesak, langile-langilesak...*

Esan bezala, euskarak ez du zertan holako femeninoak sortu, izenak ez baitira ez maskulinoak ez femeninoak: *alkatea, aktorea* edo *idazlea* dira, berez, generorik gabeko izenak.

Adibideak:

Edurne Perez **alkatesak museo berria bisitatu zuen → Edurne Perez **alkateak** museo berria bisitatu zuen.*

Udaletxeko **langile-langilesa guztiak daude gonbidatuta → Udaletxeko **langile guztiak** daude gonbidatuta*

Testuak berak edo testuinguruak adierazten du askotan pertsonaren generoa. Inoiz pertsonaren generoa nabarmendu nahi izatekotan, nahikoa da honela egitea:

emakumezko aktorea, emakume alarguna, neska dantzaria, gizon dantzaria, gizonezko aktorea...

Adibideak:

Edurne Perez **alkatesak museo berria bisitatu zuen → Edurne Perez **alkateak / alkate andreak** museo berria bisitatu zuen*

**Aktorea onenaren saria Kidmanek jaso zuen → Emakumezko aktore onenaren saria Kidmanek jaso zuen*

POPULAZIOA, IRAKASLERIA, PERTSONAK...

Zuzentasunaren bila, euskal hiztun batzuek ere estrategia batzuk baliatzen dituzte, hain zuzen genero gramatikala daukaten hizkuntzen erabiltzaile batzuek erabiltzen dituztenak maskulino generikoa saihesteko.

- “*Programa populazio erretzailearentzat eginda dago*” esaldia gaztelaniaren kalkoa da: “los fumadores” maskulino generikoa saihesteko “la población fumadora” erabiltzen da eta.

- “Irakasleria” hitza “el profesorado” sintagmaren kalkoa da, gaztelaniaz “los profesores” saihesteko erabiltzen dena.

- “Pertsona desgaituak” eta “pertsona ijitoak” moduko sintagmak gaztelaniaren kalkoak dira batuzetan: “personas discapacitadas”, edo “personas gitanas” kopiatzeko (hain zuzen “discapacitados” eta “gitanos” maskulino generikoak ez erabiltzeko).

Esan dugunez, euskaraz ez dago maskulino generikorik eta ez dago, beraz, kalko horiek erabiltzeko arrazoirik.

Adibideak:

Programa populazio erretzailearentzat eginda dago → *Programa erretzaileentzat eginda dago*

Bostgarren mailako irakasleriak txango bat prestatu du datorren larunbaterako
→ *Bostgarren mailako irakasleek / maisu-maistrek txango bat prestatu dute datorren larunbaterako*

Estereotipo asko daude pertsona ijitoekin lotuta → *Estereotipo asko daude ijitoekin lotuta*

8. ERABILPEN ASIMETRIKOAK

Hitz batzuek ez dira modu berean erabiltzen, edo ñabardura desberdinak daukate, emakumeei eta gizonei aplikatzen zaizkienean.

-**Gizona izatea** `ausarta´ edo `adoretsua´ izatea da; horrela adierazi da askotan eta horrela jasotzen da hainbat hiztegitan. “Emakumea izatea” ez da modu berean ulertu. Erabilpen asimetriko hori zuzentzea ez da zaila:

Etorri hona, gizona bazara → *Etorri hona, ausarta bazara*

-**Gizon portatzea** esapideak `behar bezala´ edo `egoki jokatzea´ esan nahi du eta ez dauka baliokide femeninorik.

*Taldeko euskaldunek ez zuten berarekin grabatu nahi izan, baina Andrewk laguntza eskaini zion. **Gizon portatu zen**, bai, Andrew → Taldeko euskaldunek ez zuten berarekin grabatu nahi izan, baina Andrewk laguntza eskaini zion. **Primeran / ederto /... portatu zen**, bai, Andrew*

-**Andereño** tratamenduak ezkongabearen egoera adierazten du eta ez dauka baliokide maskulinorik; ez da, beraz, erabili behar.

Urrutia andereñoa eta Perez jauna, pasatu hemendik mesedez saria jasotzera → Urrutia andrea eta Perez jauna, pasatu hemendik mesedez saria jasotzera

-**Emakumea, neska, atsoa...** erabiltzen dira irain moduan gizonari eta mutilei aplikatuta. Erabilpen hori desegokia da.

Atso kalakariak zarete benetan! → Kalakariak zarete benetan!

Zelako baldarrak baloiarekin! Zer zarete zuek, neska batzuk? → Zelako baldarrak zareten baloiarekin!

-Kontuz hitz batzuen erabilerarekin. Hainbat hitz askoz gehiago erabiltzen dira emakumeak kalifikatzeko gizonak kalifikatzeko baino: **txolina, txatxala, pinpirina, panpoxa, kaskarina, pertxenta...** Bestalde, “mari-” osagaia erabiltzen da batzuetan emakumezkoak erdeinuz izendatzeko: **mari-matraka, mari-apain, mari-maistra...**

-Kontuz **beste hitz batzuen aplikazio asimetrikoarekin**. Aztertzen badugu nori aplikatzen diogun eta zein maiztasunarekin hurrengo hitzak, asimetriaz jabetuko gara: *polita, liraina, apala, liluragarria, delikatu, sentibera... sendoa, indartsua, ausarta, bortitza...*

9. ASIMETRIA MEZUETAN

Generoei egozten zaizkien rolen eta ezaugarrien bereizketa presente dago uneoro. Emakumeak lotzen dira ardura estetikoarekin eta izaera pasiboarekin, etxea eta familiaren zaintzarekin. Gizonari adimena eta indarra dagozkio, kalea, jarduerak eta mundu publikoa. Adjektiboetan islatzen da askotan asimetria mota hau.

*Natalie Portman, **ohi bezain eder eta elegante**, eta Robert de Niro **errekonoiztua** sari bana jasotzera igo ziren eszenatokira → Natalie Portman eta Robert de Niro aktore **errekonoiztuak** sari bana jasotzera igo ziren eszenatokira.*

*Mila esker, Nagore, eman duzun hitzaldiarengatik; **zure edertasunaz lagunduta**, gainera, gaiaren interesa ezin hobeto heldu zaigu. → Mila esker, Nagore, eman duzun hitzaldiarengatik; gaiaren interesa ezin hobeto heldu zaigu.*

10. ASIMETRIA TRATAERAN

Gizonak izendatzeko “gizon” eta “jauna” hitzak erabiltzen dira eta horien ondoan “neska” hitza erabiltzen da emakumeak izendatzeko edo, besterik gabe, haien ponte izena (txikigarrien bidez, batzuetan). Trataera horren bidez emakumeen adingabetasun irudia transmititzen da.

Garmendia jaunak eta Estitxuk aurkeztu dute txostena → Garmendia jaunak eta Díaz de Alda andreak aurkeztu dute txostena

Josu Agirre alkate jaunak hartuko du hitza lehendabizi eta ondoren Mirenek eta Nekane ekitaldiaren programa azalduko digute → Josu Agirre alkateak / alkate jaunak hartuko du hitza lehendabizi eta ondoren Miren Linazasoro fakultate honetako dekanok eta Nekane Gorostiza bertako ikerketa zuzendariak ekitaldiaren programa azalduko digute.

11. GIZONA ERREFERENTZIA MODUAN

Emakumea agertzen da gizonarekin lotuta, ez modu independentean.

Bigarren pisuko bizilaguna eta bere emaztea etorri dira kexa bat jartzera → Bigarren pisuko bizilagunak / bikotea/ ezkontideak etorri dira kexa bat jartzera

Robert Capak eta bere lankidea Gerda Tarok haien lanak abuztuan berrartu zituzten → Robert Capak eta Gerda Taro lankideek haien lanak abuztuan berrartu zituzten.

Erakusketan Rodinen bi eskultura eta bere maitale Camille Claudelen eskultura bat ikusi ahal izango dira → Erakusketan Rodinen bi eskultura eta Camille Claudelen eskultura bat ikusi ahal izango dira. [Bi eskultoreak maitaleak izan ziren]

12. JAUZI SEMANTIKOA

Batzuetan termino bat erabiltzen da orokorra (emakume eta gizonentzako) dela ulertaraziz, baina gero, momentu jakin batean, aditzera ematen da termino hori ez dela benetan orokorra, baizik eta maskulinoa soilik. Alegia, puntu batetik aurrera gizonen buruz hitz egiten digute esaldiek, ez pertsonen buruz. Zuzentzeko moduak desberdinak izan daitezke:

Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, neskekin ligatzen saiatu... → Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, beste gazte batzuekin ligatzen saiatu...

Adin baterako nork ez daki gutxi gora-behera zer den garrantzitsua bizitzan?: ondo moldatzea lau lagunekin, ondo konpontzea emaztearekin, gaizki ez konpontzea lanbidearekin... → Adin baterako nork ez daki gutxi gora-behera zer

den garrantzitsua bizitzan?: ondo moldatzea lau lagunekin, ondo konpontzea ezkontidearekin / bikotekidearekin, gaizki ez konpontzea lanbidearekin...

13. INBERTSIOAREN ARAUA

Hizkuntaren erabileran egon daitekeen sexismoari erreparatzeko, estrategia erraz bat dago eta kasu askotan ondo funtzionatzen du: inbertsioaren araua. Susmagarria den hitza edo esaldia beste generoari aplikatu diezaiozun ea egokia iruditzen zaigun. Esaldi hauek, adibidez:

Garmendia jaunak eta Estitxuk aurkeztu dute txostena.

Natalie Portman, beti bezain eder eta elegante, eta Robert de Niro errekonozitua sari bana jasotzera igo ziren eszenatokira.

Mila esker, Nagore, eman duzun hitzaldiarengatik; zure edertasunaz lagunduta, gainera, gaiaren interesa ezin hobeto heldu zaigu.

Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, neskekin ligatzen saiatu...

Ziur aski desegokia irudituko zaigu:

Robert de Niro, beti bezain eder eta elegante, eta Natalie Portman errekonozitua sari bana jasotzera igo ziren eszenatokira.

Halaber, nekez aurkituko genituzke honako esaldi hauek:

Díaz de Alda andreak eta Joseluk aurkeztu dute txostena.

Mila esker, Andoni, eman duzun hitzaldiarengatik; zure edertasunaz lagunduta, gainera, gaiaren interesa ezin hobeto heldu zaigu.

Jauzi semantikoa ez da inoiz emakumeekin gertatzen:

Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, mutilekin ligatzen saiatu...

Horretaz konturatzeko nahikoa izan daiteke pertsonen trataera desegokia zuzentzeko.

14. ANDROZENTRISMOA

Fenomeno hau modu berean gertatzen da hainbat hizkuntzatan. Honakoa esan nahi du: adierazpen batzuetan ulertzen da gizona munduaren ardatza eta neurria dela. Izan ere, askotan badirudi mundua gizonek bakarrik osatzen dutela:

*Frantziako iraultzaren ondorioz **sufragio unibertsala** ezarri zen → Frantziar iraultzaren ondorioz **gizonentzako sufragioa** ezarri zen.*

Atenastarrek** bozketaren bidez aukeratzen zituzten haien ordezkooak → **Gizon atenastarrek** bozketaren bidez aukeratzen zituzten haien ordezkooak, **horiek ere gizonak.

Kontuan hartu behar da emakumeak populazioaren erdia zirela Frantzian eta Atenasen eta bozkatzeko eskubidea ukatzen zitzaiela.

Emakumeak ezkutatzeaz gain, maila baxuko gizonak ere ezkutatuta geratzen dira bi esaldietan: hor aipatutako eskubideak ez zituzten gozatzen gizarte horietako gizon guztiek, baizik eta gizon hiritarrek eta askeek (esklaboek ezin baitzuten bozkatu).

15. LESBIANAK, GAYAK, BISEXUALAK, TRANSEXUALAK... IZENDATZEA

Euskaraz ere mesprexuz tindatutako izenak aurkitzen ditugu heteroautik ateratzen diren pertsonak deitzeko: “marika”, “marikoia”, “maritxu”, “bollera”... Egia da LGTB kolektiboak izen horiek hartu dituela harrotasunez, desfioz eta umorez, eta autoizendatzeko erabiltzen dituela. Kolektiboaren kanpotik eta maila formalean, hitz egokienak nazioartekoak dira: “lesbiana”, “gaya”, “homosexuala”, “transexuala”, “transgeneroa”, “bisexuala”...

16. AZKENEKO KOMENTARIOA

Ataletan zehar ikusi dugu zein puntutaraino dagoen presente generoa euskaraz ere, eta ohartu gara, halaber, generoa ez dugula beti modu egokian adierazten. Ere horretan ezagutzen ditugun beste hizkuntzekin alderatzen badugu euskara, ondorioztatzen dugu nahiko antzekoak direla desegoki adierazteko hainbat modu: jauzi semantikoa, tratera asimetrikoa...

Bestalde, fenomeno bat nabarmentzen da gure azterketan. Euskaraz ere joera dago hitz maskulinoak modu generikoan erabiltzeko, alegia, talde mistoei aplikatzeko edo ezagutzen ez dugun generoko errealitatei aplikatzeko (hitanoaren erabileran; “semea”, “jauna” eta beste izen maskulino batzuen pluralean...). Modu horretan euskararen izaera bihurtzen dugu, ez baitu berez maskulino generikoa ahalbidetzen.

Baina generoa daukan lexikoa ez da diskriminazioaren motiborik behinena. Mezuen edukietan adierazten den sexismoa eta emakume eta gizonen trataera asimetrikoa da diskriminazio ohikoena; horiek euskaraz ere gertatzen dira beste hainbat hizkuntzatan bezalaxe. Posible da, hala ere, erabilpen egokia egitea arreta apur jarriz gero: hizkuntzak parada ematen digu hiztunoi egoki adierazteko bideak aukeratzeko. Baina horretarako kontzientzia hartu behar dugu eta hiztun batzuek gizon eta emakumeei buruz daukaten ikuspegia eraldatu behar lukete. Kasu askotan gakoa ez dago hizkuntzan, baizik eta atzean dagoen ikuspegian; hizkuntza ikuspegia komunikatzeko tresna baino ez da.

Edozein modutan ere, kontzientziatutako hiltunek hilkuntza egoki erabiltzeak laguntzen du gizarte zuzenago bat bultzatzen.